



PASAI DONIBANE ATEZ ATE:

HERRITARREN FORMAIZORAKO, INFORMAZIRAKO ETA EKARPENAK JASOTZEKO PROZESUA, 2013

PROCESO DE INFORMACIÓN, FORMACIÓN Y APORTACIONES CON LA CIUDADANÍA, 2013

SAIOAREN AKTA **ACTA DE LA REUNIÓN**

BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

Bilera zenbakia/Número de reunión : 1.
Xede taldea/Grupo de trabajo : Landa eremua
Data : 2013-IV-12

Lekua/Lugar: Arrokkandieta aterpetxea
Hasiera ordua/Hora de inicio: 19.00
Amaiera ordua/Hora de finalización: 20.30

DINAMIZAZIOA/ DINAMIZACIÓN

Alkatea/Alcaldesa Amaia Agirregabiria
Teknikaria/Técnico Markel Azkargorta (Ingurumen teknikaria)
Udal partaidea/Representantes municipales Oihane Oronoz eta Juanra Cano (zinegotziak)
Dinamizatzailea/Dinamizador Arkaitz Martinez de Albeniz
Parte hartzaile kopurua 19 (12 emakume eta 7 gizon)



1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA/ BIENVENIDA Y PRESENTACIÓN

Alkateak bertaratutakoei ongi-etorria eman die, prozesuaren zioa eta helburuak aipatuz, eta udalaren aldetik mahaian dauden kideak eta aholkularitza aurkeztu ditu.

La Alcaldesa da la bienvenida a los y las asistentes, explicando la motivación de la reunión. Hace las presentaciones de los miembros de la mesa por parte del Ayuntamiento y de Aztiker.

2. PROZESUAREN ETA BILERAREN AURKEZPENA/ PRESENTACIÓN DEL PROCESO Y LA REUNIÓN

Aztikerreko dinamizatzaileak prozesuaren aurkezpena burutu du, helburuak, xede taldeak, bilerak eta metodologia azalduz. Era berean, gaurko saioaren aurkezpena eta eguneko bileraren helburuak, partaideak, egitura eta metodologia azaldu ditu.

El dinamizador de Aztiker realiza la presentación del proceso, explicando los objetivos, grupos de trabajo, reuniones y la metodología. Asimismo, presenta la reunión de hoy, citando los objetivos, participantes, estructura y metodología que se va a llevar a cabo.

3. SISTEMA EZARTZEARI BURUZKO INFORMAZIOA/ INFORMACIÓN SOBRE LA APLICACIÓN DEL SISTEMA

Alkateak sistema ezartzeari buruzko erabakia eta argudioak kokatu ditu eta **teknikariak** sistema berriaren ezaugarri tekniko nagusiak (frakzioak, gaiak, bilketa egutegiak, zintzilikarioak, ordutegiak, hobekuntzak).

La Alcaldesa explica la decisión y los argumentos por las que se aplica el nuevo sistema y el técnico se encarga de explicar las características técnicas principales (fracciones, temas, calendarios, colgadores, horarios, mejoras)

4. HERRITARREN ZALANTZAK ETA KEZKAK KOKATZEA ETA LANTZEA/ DUDAS, PREGUNTAS Y APORTACIONES DE LA CIUDADANÍA

Herritarren zalantzak eta kezkek jaso dira, txanda irekiaren bidez. Dinamizatzaileak hauek jaso eta hiru multzotan sailkatu dira: zalantzak eta kezkek batetik, ekarpenak eta proposamenak bestetik, eta iritziak beste batetik. Ondoren alkatea, zinegotziak, teknikariak eta gonbidatuak izan dute galderei erantzuteko tarteak. Jarraian, alkateak argitu ditu erabaki politikoari buruzko galderak eta teknikariak berriz ezarpen prozesuari buruzko zalantzak eta kezkek.

Jarraian aurkezten den taulan ikusi ahal dira jaso diren balorazio eta iritziak, zalantza edo kezkek eta egin diren ekarpena:

Se han recogido las dudas y preocupaciones de los y las asistentes, mediante una ronda abierta. El dinamizador las ha clasificado en tres grupos: las dudas por una parte, las aportaciones y propuestas por otra, y finalmente las opiniones. A continuación, la alcaldesa, los y las concejales, los y las invitadas y la técnica han tenido opción de contestar a las preguntas.

A continuación se muestran las distintas valoraciones y opiniones, dudas y preocupaciones y las aportaciones que se han hecho:

BALORAZIOAK/IRITZIAK <i>VALORACIONES/OPINIONES</i>	ZALANTZAK/KEZKAK <i>DUDAS/PREOCUPACIONES</i>
<p>-Autokonposta egiteak arratoiak erakartzen ditu -Sistema berri honi ikusten diodan eragozpena, pertsona adinduek zailtasunak izango dituztela hondakinak herriraino jeisten -Elektrodomestikoak, ... nora bota behar diren ez daukagu oso argi. Informazio hori hobeto zabaldu behar da.</p>	<p>-Ekarpen Guneetan ordutegi eta egutegirik dago? -Konpostajea nola egiten da? Konpostajerik egiten ez badugu ze alternatiba geratzen zaigu? Konpostaia egiteko asmoa duena udalak antolatuko duen ikastaro bat egin beharko du, eta bertan azalduko dira konpostaiaren ezaugarri guztiak. Egin nahi edo ezin duenak Ekarpen Guneetan organikoa beste frakzio gisa bildu beharko du. Konpostaia egiten duenak %40ko hobaria izango du tasan, udalak frakzio organikoa bildu behar e z duelako. -Pardelak noiz bota behar dira? Pardelak egunero biltzeko aukera egongo da</p>
	EKARPENAK/PROPOSAMENAK <i>APORTACIONES/PROPUESTAS</i>
	<p>-Kiroldegi azpian Ekarpen Gune bat jartzea Larrabideko herritarrentzat. Udalak egoki ikusten du proposamena. -Jaizkibel inguruan Kantina ondoan Ekarpen Gune bat ezartzeko aukera aztertzea. Udalak aproposa ikusten du proposamena. -Aterpetxe ondoko baserriek, aterpetxean jarriko diren kontenedore edo dena delakoetan bilketa egiteko aukera izango dute?</p>

Bukaeran eta errepasso gisa, izandako ekarpenak eta udal ordezkariak eskainitako erantzun eta ekarpenak aintzat hartuta Donibaneko landa eremurako sistema jarraian aurkezten den moduan eta prozeduraren baitan izatea erabaki dela gogorazi da dinamizaziotik:

Landa eremuko biztanleek autokonposta egiteko aukera izango dute. Etxe bakoitzeko pertsonen erabakia izango da autokonposta egin edo ez; honetarako udaletik zabalduko den informazio Bulegotik herritarrekin harremanetan jarriko dira hurrengo hilabetean zehar eta adierazi beharko dute autokonposta egingo duten edo

Autokonpostari alternatiba, bakoitzaren bilketa zirkuituan organikoa Ekarpene Guneetan beste frakzio bat gehiago bezala biltzea izango da, eta Donibane osorako zehaztuko den egutegian egitea. Organikoaren bilketa astelehen ostegun eta larunbatetan egingo da.

Landa eremua hiru gunetan bereiztu da, bakoitza bere bilketa sistema edo lekuarekin:

Jaizkibel aldea – Ekarpene Gunea Kantina ondoan ezarriko da eta bertan utziko dituzte bertako herritarrek hondakinak

Larrabide auzoa – Lizeoan jarriko da Ekarpene Gunea eta bertan utziko dituzte bertako herritarrek hondakinak




Donibane pasealekua – Bertako herritarrek biltzeko bi aukera izango dituzte: Alde Zaharreko lokaletan bilketa egin-zintzilikarioen bidez- edo Frontoian ezarriko den Ekarpene Gunean.

Autokonposta egiten duten herritarrentzat, organikoa ez den gainontzeko frakzioak bakoitzaren zonaldeari dagokion Ekarpene Gunean bildu beharko du ordutegi eta egutegi zehatzik gabe. Honetarako, etxebizitza bakoitzeko lagunek giltza bat izango dute, itxita egongo den Ekarpene Gunera sartu eta hondakinak husteko.

Autokonposta egiten ez dutenak, prozedura berdina jarraituko dute, baina organikoa Astelehen, ostegun eta larunbatetan. Ekarpene Guneetarako giltza propioa izango dute ere.

Donibane Pasealekuko herritarrek Alde Zaharrean egokitu diren lokaletan bilketa egitea erabakitzen dutenentzako oraindik zehaztu gabe dagoen prozedurara egokitu beharko dira. Prozedura honen zehaztapenerako murgilduta gauden prozesu honen 2. errondako bilera aprobetxatuko da. Bilera honetarako hitzordua hurrengo da: apirilaren 18an, arratsaldeko 19tan Zineman.

5. BILERAREN BALORAZIOA/ VALORACIÓN DE LA REUNIÓN

	Bilerako giroa <i>Ambiente de la sesión</i>	Erabilitako metodologia <i>Modo de trabajo</i>	Landutako edukia <i>Contenidos creados</i>
	XX Bikain	XX Bikain	XX Bikain
			
			

Bilera bukatutzat eman da Pasai-Donibanen, 2013ko apirilaren 12an, arratsaldeko 20.30tan.
La reunión se da por finalizada a las 20.30 del 12 de abril 2013 en Pasai-Donibane.



Mila esker guztioi zuen ekarpenengatik!
¡Muchas gracias a todas por vuestra aportación!